

ESTELA CON LOS PRIMEROS NOMBRES DE MUJERES APARECIDOS EN POMPELO/PAMPLONA

La reproducción de esta estela responde al compromiso del Ayuntamiento de recuperar para la memoria histórica de la ciudad, la presencia y las aportaciones de las mujeres.

Esta estela funeraria es un homenaje a las primeras mujeres que conocemos de la historia de la ciudad. Antes hubo otras, pero ellas dejaron tallados sus nombres en piedra y con ello su voluntad de ser nombradas y recordadas. Estos nombres tienen casi dos mil años.



HILARRI HONEK POMPELO- IRUÑEAN EZAGUTU DIREN LEHEN EMAKUME IZENAK JASOTZEN DITU

Udalak emakumeen presentzia eta haien ekarpenak berreskuratzeko konpromisoa hartu du hiriaren memoria historikoan gorde nahian, eta, hain zuzen ere, asmo horri erantzuten dio hilarri honen erreprodukzioak.

Hiriko historiaren barnean ezagutzen ditugun lehen emakumeen aldeko gorazarrea da hilarri hau. Beste batzuk egon ziren aurretik, baina lau horiek beren izenak utzi zituzten harrian zizelkatuak, eta, harekin batera, izendatuak eta gogoratuak izateko borondatea ere bai. Ia bi mila urte dituzte izen horiek.

HILARRI HONEK POMPELO-
IRUÑEAN EZAGUTU DIREN LEHEN
EMAKUME IZENAK JASOTZEN
DITU

Hilarria 1895eko urriaren 17an aurkitu zen Iruñeko Navarrería kalean, baina baliteke hasiera batean erromatar hiriaren hegoaldeko nekropolian egon izana, Merced-Telleria-Labrit kaleen artean.

Festa, Rustica, Stratia eta Antonia lau emakume izan ziren, Pompelo hiri baskoi eta erromatarraren hasierako goren uneak ezagutu zituztenak, K.o. II. mendeko garai haietan. Aise irudika ditzakegu karrika harritatu eta arkupetu haietakoren batean barna ibiltzen, edo festa-giroan, edota gaur egun Artxidiakonotza den alde horretan zegoen azoka txikian erosten. Beste toki batzuetan ere irudika ditzakegu, hala nola Mañuetako edo Gazteluko plazako bainu-etxeetan, betiere emakumeentzat erreserbatutako egun eta orduetan. Edota Inperioko hiri txiki haren -halakoa zen Pompelo orduan- eguneroko bizimoduan egiten ziren ekitaldi guztietan parte hartzen.

Gorde dezala hiriak bere karriketan barna ibili ziren emakume haien eta beste anitzen aldeko aitorpena.

SIXTILIUS S[ILO?]
ANTONIA [MATER / UXOR?]
SERENUS [FRATER ET]
STRA[TIA?] SOROR K
[H(IC)] S(ITI) S(UNT)
[F]ESTA ET RUST[ICA]
HE(R)EDES D(E) S(UO) [F(EC)ERUNT]

Texto propuesto por Javier Velaza Frías
Javier Velaza Frías jaunak proposatutako testua

ESTELA CON LOS PRIMEROS
NOMBRES DE MUJERES APARECIDOS
EN POMPELO/PAMPLONA

La estela fue localizada el 17 de octubre de 1895 en la calle Navarrería de Pamplona, pero su ubicación inicial bien pudo ser la necrópolis sur de la ciudad romana, situada entre las calles Merced-Tejería-Labrit.

Festa, Rustica, Stratia y Antonia fueron cuatro ciudadanas que tuvieron la suerte de vivir uno de los primeros apogeos de la Pompelo vascorromana, allá por el siglo II d.C. No es difícil imaginarlas paseando por cualquiera de sus pequeñas calles enlosadas y porticadas, asistiendo a fiestas o comprando en el pequeño mercado situado en lo que hoy es el Arcedianato. Las podemos imaginar también utilizando las termas de la Mañueta o de la plaza del Castillo durante los días y las horas reservadas para las mujeres. O participando de todos los acontecimientos de la vida cotidiana de esta pequeña ciudad del Imperio que por entonces era Pompelo.

Quede para la ciudad el reconocimiento a éstas y otras muchas mujeres que transitaron por ella.